

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Enpresa guztiek eduki behar duten funtsezko ezaugarri bat, bezeroekin duten harremana da. Honek ez du arrakasta irabazten soilik laguntzen, baizik eta, negozio ideia geroz eta jende gehiagok ezagutzea eta gure gertutasunagatik baloratuak izatea. Guretzat oso garrantzitsua da harreman ona edukitzea, gure produktua gehienbat internetetik salduko dugulako, nahiz eta aurrez-aurreko harremana eskura izan, ez da mundu guztian zehar egongo den zerbitzua, baizik eta Euskal Herri inguruan emango dena.




Gure desabantaila handienetako bat, gure produktua gehienbat online salduko dugula da. Honek ez liguke emango aukera bezero guztiekin aurrez-aurreko harremana edukitzeko, baina arazo honi irtenbidea emateko, webgune bat egitea pentsatu dugu. Bertan gure produktua eskaintzeaz gain, bezeroei gure gertutasuna adieraziko diegu. Kutxa moduko bat txertatuko dugu, interesa edo zalantza duten bezeroek galderak eta zalantzak guri bidaltzeko. Hauek guri iritsiko litzaizkiguke eta horrela harreman estuago eta gertuago bat edukiko genuke.

Lehen aipatu bezala, gure webguneak abantaila eta erabilgarritasun asko edukiko ditu. Lehenik eta behin, lehen aldiz webgunera sartzerakoan, posta elektronikoko bat eskatuko genuke, harremanetan jartzeko tresna bat edukitzeko eta erregistratzerako momentuan, gure gertutasuna adierazteko. Emailera, eskerrak emanez mezu bat iritsiko litzaioke erregistratu den pertsonari, guretzat oso garrantzitsua baita bezeroak ondo tratatzea eta gure gertutasuna adieraztea. Horrelako ekintzak egiterako momentuan, bezeroek guretzat nolako garrantzia duten adierazteko modu bat bezala ulertzea nahi dugu, ez ondo gelditzearen papera egiteko bakarrik.

Beste alde batetik, bezeroek gure gertutasuna somatzeko, gure armairuaren muntaketa nola egiten den eta pausuz pausu azaltzen duen bideo bat jarriko dugu Youtuben. Honen bidez, bezeroengana gerturatuko gara eta beraiekin harreman zuzena mantentzea ezinezkoa denez, bideoaren bitartez, segurtasuna eskainiko diegu muntatzerako orduan.

Jakinda gure bezero guztien ezagutza maila berbera ez dela, lagungarri izango duten liburuxka bat eskainiko diegu gure produktuarekin batera. Liburuxkan, helburu ezberdinak dituzten ariketak egongo dira, horrela, maila baxuagoan edo esperientzia gutxiago duten pertsonen, ariketak egiterako orduan gida bat izango dute.



Bezeroak fidelizatzeko ere ekintzak egingo ditugu, geheinbat webgunean munduko pertsona guztiak aukera izan dezaten hauetan parte hartzeko. Ekintza hauek, beherapenak izango dira multzo handi batean, gure produktua prezio eskuragarri batean erosteko. Horrez gain, gure produktua merkea ez dela kontuan dugu, baina guk ez dugu nahi arazo ekonomikoengatik ezin erostea, horregatik, zailtasunak dituzten bezeroentzako, ordaintzeko metodo desberdinak edukiko ditugu eta horietako bat epe erosoetan ordaintzeko aukera izango litzeteke. Honek ordaintzerako momentuan lasaitasun handiagoa emango du, ez delako beharrezkoa guztia une batean ordaintzea, baizik eta, pixkanaka ordainduz joatea, horrela lasaiagoa eta errezagoa izanez.

Bezeroekiko harreman ona edukitzearekin, ez dugu nahi arrakasta eta fama ona bilatu, baizik eta, gure enpresa geroz eta hobeagoa egitea eta arazoak konpontzen eta hobetzen joatea ahalik eta laguntza gehien eskainiz.